

• IRITZIAREN LEIHOA •

TTAKUN (H)ERRENKA

Agur adiskideak

Hautsiko da Angel, Josi eta hiruron artean hedatu beirazko kristala, autobusetik jaisiten na(ize)(ute)lako. Azkena dut honakoa, azken idazkia diot, ez azken beltza. Ur [Apalategi] lagunarekin *triumvirat* galanta osatuko duzuela badakit aitzine-tik, latina, lapatina eta kantüko kantina txukunki zaindüz. Gaitze-tsiagatik, lehiatzen ditugu sakonki bereizten, handitzen, mirailtzen, eraikitzen, suntsitzen, hormatzen eta berotzen gaituzten f(r)ikzioz-ko kristalak. Irakurleak berdinki, kaskomen-diotako pista jokoetan desbideratzea eska-tzen du: “*Tout est pour le mieux dans le meilleur des mondes possible*” zioen Panglossek Voltai-ren *Candide* hartan.

Angel transferminetara transiturik trans-portatu eta Zaldiko Maldiko tabernako barran Sagrario Aleman adiskide euskaltzain berria-rekin solasean –Lapurdumetik zorionak– loriatu dela itxuratzek pozten nau: Iruñea *javel* edo lixiba usaineko desertu hotza bihurtu da aingeru-hegalen azpian. Trinkili-trankala, etxeratzen imajinatu dut Bilbao kafetegi ohia-ren aurretik, ez da beti suertetik edukitzen alabaina, baina gurea bezalako xantza eskasa zerbait da halere. Gertatu zait halaber askotan ile luzedun aztiren bat segitzea, desiratzea, gutiziatzea *ene* naturaren arabera eta lehen iza-rrak zeruan itzaltzen ikustean jarraipenaren debalde onartu beharra: negar anpulua leher karrika izkinan eta gin-tonic bat mana, ekia-ren bekaizkeria deitoratuz.

Nehork ez baitu xenda erraza: nahi genuke absolutuki maitatuak izan eta aldi berean, sor-gin batek gure irriñoa edo ibilera kuttun kau-sitzen duelarik, ez mai-tatuki iraun, derrigorrez, amodioak, errebeldiaren antzerako gauza serioa delako, geuronen baita-ko basamortuetarako ihesa uhertuko lukeela sinetsiz. Maitatuak, baina guk finkaturiko neurrian, ez sobera, amini bat, maitatuak garela sentitzeko doia.



GAIZKA IROZ

Iñaki Borda

Erro

Basteretxea

Laztan gaitzakeen inor ez dagoela munduan irudikatzea handiosa da, ohoragarria, poe-ten bakartasunean tematzea laguntzen gaituelako. Olerka-riak ez gara ordea greko zaha-rretakoak, *maite hau(na)t* durdu-zatia grekatu arren, ilunbeak lurraren hegiak ausikitzen dituenen.

Sinead O'Connor jenialaren *Theology* diskoa behatzen dut:

lau haurren ama horren entzuteko ohitura daukat, Baionbiloniako erreketan isurtzen doakidan bizitza kolpeka nabaritzen duda-nean. Egunerokoa azpatu dit, Madonnak edo Hertzaianak-ek bezainbeste. Amodiozko kanta zoragarriak grabatzen ditu Dublinen zein Londresen eta maite dukedan andereari eskai-ni niezaioke, ingelesa ulertzen balu bederen: *I wanna make something beautiful for U and from U to show U I adore U Oh U*. Konturatzen naiz zein gutxi konprenitzen dudana nihaurek ezpainetan dabilkidan ama-hizkuntza, ez nai-zelarik alta aurten Iruñean harrotul!

Udara hemen pasatuko dut, lanetik itsaso-ra, paperezko lehorretarik euskal kostalde mineralera. Umeki hiperbolikoaren pare arta-tuko nauen kristal ingurukari salbatzailerik gabe. Haizea bilatuko dut aditzetan, airea eta adiskidantza maitemindu misterio-tsuen hatzak hondarraitzetan. Neurea –ere– den herrialdean, folklore zaharrari berrekinez, bonbak zartatuko dira hau eta hura salatze-ko, gazte hutsak arrastatuko dituzte eta burua apalduko dut bortizkeria justifikatuko didate-nean: jaidura aberezaleek eredu arketipikoen aldarean sakrifikatuko gaituzte marrakaz eta zintzur-orroaka.

Babiloniaz amets dagit, amoreman emearen ura hurrupa eta ortzeari begira geratzeko, Josiren martiztarren eta Angelen harkadiak noizbait gurutzatu lehian. Baina dagoeneko bidaia bukatu zait.

...*When I remember Gaztelugatxe*. ■

Babiloniaz amets dagit, amoreman emearen ura hurrupa eta ortzeari begira geratzeko, Josiren martiztarren eta Angelen harkadiak noizbait gurutzatu lehian.

Baina dagoeneko bidaia bukatu zait